

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asturiasko eta Vianako Printzesa Letiziak gizarte-boluntariotzaren estatuko sariak banatu ditu Iruñean

Antonio Gómez, Felipa Merino, Espainiako Tutoretza Fundazioen Elkarte eta Nafarroako Boluntariotza Plataformaren ibilbide solidarioak saritu ditu.

Miércoles, 27 de noviembre de 2013

Asturiasko eta Vianako Printzesa Letizia andreak gaur eguerdian banatu ditu Iruñean Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ematen dituen [gizarte-boluntariotzaren estatuko sariak](#), modu boluntario, altruista eta solidarioan baztertuta dauden pertsonen alde egindako ibilbidea eta ekintzak eskertzeko.



Printzesa sarituekin batera.

Sariak Baluarte Jauregiko Areto Nagusian eman dira, atzotik bihar arte, osteguna, han ari baitira egiten Estatuko [Boluntariotzaren 16. Biltzarra](#), Nafarroako Gobernuak, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak, Espainiako Boluntariotza Plataformak eta Nafarroako Boluntariotza Plataformak antolatuta.

Asturiasko eta Vianako Printzesak Antonio Gomezi eman dio gizarte-boluntariotzaren estatuko saria banakoen modalitatean. Kategoria berean, Felipa Merinori egin dio ohorezko aipamena. Taldeko modalitatean, estatuko saria Luis Perales [Espainiako Tutoretza Fundazioen Elkarteko](#) lehendakariak jaso du, eta Maite Font [Nafarroako Boluntariotza Plataformako](#) lehendakariari egin dio ohorezko aipamena.

Sariak banatzeko ekitaldia " Navarra Televisión eta TVEko " Canal 24 horas kateetan zuzenean eman dute. Bertan parte hartu dute Yolanda barcina Nafarroako Lehendakariak, Ana Mato Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministroak, Enrique Maya Iruñeko alkateak eta Luciano Poyato Espainiako Boluntariotza Plataformako lehendakariak.

Agintarien mintzaldiak

Asturiasko eta Vianako Printzesak, sariak banatu ondoren egin duen [mintzaldian](#) zera adierazi du, " Nafarroa oso eskuzabala eta besteekiko ardura duen lurraldea da eta azpimarratu du boluntarioek " maitasunean oinarrituta eraikitzen dutela gizartea eta, horiei esker, " jendea bidezkoagoa, integratzaileagoa eta ulerkorragoa izatea lortzen dela.

Halaber, Letizia Printzesak gehitu du boluntariotza-erakundeek " guztiok gizarteari buruz dugun ideia lortzea dutela helburu: bata bestearekin lotutako pertsona taldea, eskuzabaltasunaren, esfortzuen, lanaren, konpromisoaren, erantzukizunaren eta iraunkortasunaren balio komunak dituzten pertsoez osatua .

Aurrez, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak, [mintzaldian](#), nafarren bihotz ona, leialtasuna eta borondate handiko izaera nabarmendu ditu, eta gaineratu du harro dagoela horien lehendakaria izateaz.

Sarituei eskerrak emateko hitz batzuk esateaz gain, Barcina Lehendakariak Nafarroako Gobernuak boluntariotzaren alde " modu aktiboan lan egiteko duen konpromisoa ere agertu du. " Boluntariotzako Erakundeak eta Boluntariotza Programak dituzten Erakundeak errola ari gara sortzen; horretarako, 2013an, boluntariotzan jarduten diren hirurogeita hamar erakunderekin baino gehiagorekin aritu gara lanean , aitortu du. Lehendakariak arlo horretako plan estrategiko bat diseinatu, Boluntariotza Batzorde bat abian jarri eta, 2014an, boluntarioak eta erakundeak orientatuko dituen boluntariotzarako bulego bat irekiko dela ere aipatu ditu.

Bestalde, Ana Mato Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun ministroak iragarri du Boluntariotzaren Lege berri bat egingo dela estatu osoan " fenomeno konplexu horri legezko esparru egoki bat jartzeko . Horrez gain, adierazi du legea " irekia eta parte-hartzekoa izango dela, eta hirugarren sektoreko boluntarioei ez ezik enpresetako eta administrazio publikoetako boluntariotzari ere egingo dio mesede .

Luciano Poyato Espainiako Boluntariotza Plataformako lehendakariak azpimarratu du estatuan bost milioi boluntario daudela. " Pertsonen tratua duina emateko premia dagoela uste dute eta, gaineratu du, " gizarte-eskubideak ez dira eskean ibilita lortzen, irabazi egiten dira .

Amaitzeko, Enrique Maya Iruñeko alkateak hiriko udalak boluntariotzari lotuta gauzatzen dituen ekintzak aipatu ditu. Besteak beste, udal-bulegoak azpimarratu du azken urtean pertsona boluntarioak behar zituzten 200 erakundetako 1.300 eskaera izapidetu dituela.

Ekitaldia

Printzesa Letizia andrea 11:55 inguruan iritsi da Baluarteko plazara; han egin diote harrera agintariak, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria buru zela. Handik Areto Nagusira joan da. Bertan, agertokia plastikozko edalontziekin egindako lau esferarekin apainduta egon da. Apaingarriak Iberoko (Oltza Zendea) [Isterria hezkuntza bereziko zentroko](#) urritasunen bat dutenek egin dituzte.

Ekitaldia M^a Jesús Goñi eta Victorio Latasa boluntarioek aurkeztu dute eta honako hauen mintzaldiekin hasi da, hurrenkera honetan: Enrique Maya Iruñeko alkatea, Luciano Poyato Espainiako Boluntariotza Plataformako lehendakaria, Ana Mato Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministroa eta Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria.



Ondoren, Asturiasko eta Vianako Printzesak Antonio Gomezi eman dio gizarte-boluntariotzaren estatuko saria banakoen modalitatean. Kategoria berean, Felipa Merinori egin dio ohorezko aipamena. Ondoren, taldeko modalitatean, Luis Perales Espainiako Tutoretza Fundazioen Elkarteko zuzendariari eman dio estatuko saria; harekin batera izan da Socorro Salvador boluntarioa. Kategoria horretako aipamen berezia Maite Font Nafarroako Boluntariotza Plataformako lehendakariak jaso du.

Sariak eman eta Letizia Printzesaren mintzaldiaren ostean, ekitaldia amaitzeko [Atena Fundazioko](#) eta urritasunen bat dutenek osaturiko "Pasos de integración" konpainia artistikoak emanaldia eskaini du. "Mi alma en lienzo" azken ikuskizuneko "Raíces de embrujo", "Sin identidad" eta "Dime" koreografiak egin dituzte.

28 hedabide akreditatu dira ekitaldiaren berri emateko. Gainera, [ESpccpieALISTAS](#), [M^a Ana Sanz](#) zentro publikoko adimen- eta mugimendu- edo zentzumen-urritasuna duten lau pertsonak, bulegoko laguntzailearen Hasierako Lanbide Prestakuntza Bereziaren programan titulaturikoez, biltzarreko komunikazio-lanetan lagundu dute eta, gainera, asteazken honetan, Nafarroako Gobernuak prentsa-kabinetarekin lankidetzan aritu dira kazetariei akreditazioak eta agiriak emateko.

Estatuko Boluntariotzaren Biltzarra

"Construyendo ciudadanía" (euskaraz, "Gizartea eraiki") leloa duen Estatuko Boluntariotzaren XVI. Biltzarra atzo hasi zen eta bihar arte, azaroak 28, izango da. 400 pertsonak baino gehiagok hartuko dute parte bertan, besteak beste, estatuko eta Nafarroako boluntariotzari lotutako elkarte eta instituzio nagusietako ordezkariak.

Hiru egunetan, Baluarte Jauregian, 40 hizlarik baino gehiagok parte hartuko dute. Esate baterako, krisialdian boluntariotzak dituen erronkak, administrazioekin eta enpresen sektorearekin lankidetzan aritzeko modu berriak, gazteen parte-hartzea, hirugarren sektoreko erakundeen arteko lankidetzak eta itunak, eta ekintza boluntarioaren etika aztertuko dituzte.

Biltzarra Nafarroako Gobernuak, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak, Espainiako Boluntariotza Plataformak eta Nafarroako Boluntariotza Plataformak antolatu dute. Iruñeko Udalaren eta "la Caixa" Gizarte Ekintzaren laguntza izan dute.

Galería de fotos



Antoni Gómez gizarte-boluntariotzaren estatuko saria jasotzen, banakako modalitatean



Felipa Merinori egin diote ohorezko aipamena banakako kategorian.



Luis Perales eta Socorro Salvador Espainiako Tutoretza Fundazioen Elkarteari emandako gizarte-boluntariotzako estatuko saria jasotzen.



Maite Font Nafarroako Boluntariotza Plataformari egindako aipamen berezia jasotzen.



Barcina Lehendakariaren mintzaldiko unea.



Mato ministroaren mintzaldiko unea.



Enrique Maya Iruñeko alkatearen mintzaldiko unea.



Luciano Poyato Espainiako Boluntariotza Plataformako lehendakariaren mintzaldiko unea.



Agintariak Baluarte Jauregira iristen. Aurrean (ezkerretik eskuinera): Mato ministroa, Letizia Printzesa eta Barcina Lehendakaria.



Agintariak, Baluarteko Areto Nagusiko lehen eserlekuetan.



Atena Fundazioak eskainitako ikuskizuneko unea.